

DATORRENA

Urte politikoaren hasiera,
erritoak eta erronkak **MAITE UBIRIA > 3**

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Maravillas: bi kontraesan eta
post data bat **RAMON SOLA > 9**

2018ko abuztuaren 25a | XII. urtea • 583. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



WASHED ASHORE PROJECT

ITSAS ZABORRA, HEZTEKO ARTE > 10



Sao Paulo: Herritar askoren irtenbidea, etxe zaharrak okupatzea 04

Kroaziako presidentearen asmoari kiratsa dario 06


Itsasoko plastikozko hondakinak, arte eta hezkuntza tresna 10

In fraganti: Alfonso Aranburu 18

«Maite-maite zaitut, pila-pila...» 20

Psikoterapiaren erabilgarritasuna berretsi du nerabeen iritziak 21

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria:** Urte politikoaren hasiera, erritoak eta erronkak
- 08 **Oier Gorosabel:** Atleta zaharrarena
- 09 **Ramon Sola:** Maravillasen irakaspenak: bi kontraesan eta post data bat
- 14 **Unai Gaztelumendi**
- 15 **Joxean Agirre:** Hizkuntzak
- 15 **Nekane Zinkunegi:** Bizi zitezkeenak
- 16 **Gaizka Amondarain:** Mihisea
- 17 **Xabier Izaga:** Patxada subjektiboa
- 22 **Ana Elozegi:** «Salamancara joan nintzen...»



{ datorrena } **Maite Ubiria**

Urte politikoaren hasiera, erritoak eta erronkak

Aurtengoa urte politikoaren bigarren hasiera izango da Emmanuel Macron frantziar presidentearentzat. Iaz, berrikuntza aldarrikatuz, errito bilakatu den ohiturari bizkarra eman zion Errepublika Martxan alderdiak. Aurten ere urte politikoari begira erronkak finkatzeko balioa duen zeremoniari izkin egingo dio, bigarren aldiz, “Errepublikaren modernizazioa” xede nagusitzat hartu zuen mugimenduak. Alderdi tradizionalen usadioak alde batera uzteko keinuak, baina, indarra galdu du dagoeneko. Udako oporraldia-
ren atarian zartatu zen “Benalla aferari” ez da inondik inora ahaztu, eta hiru astez Bregançongo gotorlekuan oporrez gozatu ostean Eliseora itzuli den agintariak arrisku bizia du eskandaluaren zama pairatzeko.

Iragan Maiatzaren Lehenan, Parisen, manifestarien aurka oldartu zen presidentearen segurtasun zirkulu hurbileko gizon ukiezina auzipetu izanak, agian, Benallaren desmasiak zuzentzeko balio dezake, baina ez du inondik inora balioko eragindako kalte politikoa estaltzeko. Bestalde, gobernukideen eta legebiltzar taldeko ordezkaritza murrizt baten aurrean Macronek egindako adierazpen harro eta agintzaileak utzitako ajea ere ez da guztiz digeritu. «Arduradun bat xerkatzen duena etor dadila nigana, ni naiz arduradun bakarra», bota zuen uztailaren 24an presidentearak, jada egina zegoen kaltea bizkar gainean hartuz. Neurri handi batean, hitzokin Macronek presidente “jupiterianoa” izatearen distira galdu zuen, nahitaez bere aurretik eroritako hainbat jainkotxoren mailan kokatu baitzen. Nola ahaztu Eliseoko bidean estropezu egin zuen Fillon hautagai eskuindarrak formulazio antzekoa erabili zuela bere emazte Penelope jo puntuan zuen asmatutako enpleguen aferak sorturiko sutea itzali nahian? Botere hantustea sinbolizatu zuen Sarkozyren estiloa bereganatuz, zaharkituriko eredua

berritzeko bere egitasmoa zalantzan jarri zuen Macronek. Konstituzioak aitortzen dizkion pribilegioak bere alde baliatu zituen, azalpenak emateari uko eginez. Horregatik, Macronek jokabideak urte politikoaren hasiera baldintzatuko du. Norabide aldaketarik ezean, Errepublikaren arkitektura eguneratsetik harago joan behar zuen Konstituzioa erreformatzeko prozesuaren irismena kimatu dezake, prozesuaren sinesgarritasunaren kaltetan. Are gehiago Errepublika Martxanek erakutsitako kemen eskasak, giro politikoa haizeberritzeko agintekeriaren errezeta zaharrari ateak parez pare zabaltu dakizkionean. “Benalla aferari” emandako irteera faltsuak, urte politikoaren hasierako erritoa aintzat hartu ala ez, marka utziko du irailetik aurrera zabalduko den denbora politikoan.

«Benalla aferari» irtenbide faltsua eman ez eta Korsikako auzia «standby» egoeran utzita joan zen oporretara Macron, eta biak ditu zain behin Bregançonetik itzulita

Legebiltzarrean duen gehiengo zabalak eskaintzen dion lasaitasuna baliatuta, aurrekontuaren prestaketa lehenetsi du oraingoz Macronek. Alta, aipaturiko Konstituzio erreformaren gaineko eztabaidak markatuko du egutegia, gobernuaren paper-zorroetan zain dauden erretreten zein administrazioaren erreformak bistatik galdu gabe. Hain zuzen ere, frantziar Konstituzioari 1998an eginiko erreformak ahalbidetu zuen Kaledonia Berrian hitzartutako Noumeako Akordioa, eta 2007an onarturiko beste aldaketa batek –oraindik ere eztabaida sortzen duena– zehaztu zuen bertako autodeterminazio erreferendumeko hausteleria. Burujabetza lortzeko bide luze eta malkartsu horretan, zalantzarik gabe, mugarri izango da azaroak 4an Kaledonia Berrian deituriko erreferenduma. •

SAO PAULO

200dik gora eraikin okupatuta, gora egin du etxebizitzaren inguruko borrokak

 **JENDARTEA** / Paula Ramon (AFP)

«Hau txikia da eta ez dago luxuzko ezer, baina era duinean bizitzeko moduan gara. Nire ametsa hemengo etxebizitzaren bat niri ematea izango litzateke». Brasilgo hiririk handienean aurrera ateratzea oso zaila da herritar askorentzat. Eraikin zaharrak okupatzea irtenbide ezin egokiagoa da brasildar askorentzat gaur egun.

Sao Paulo hiriko erdialdean 50 metro karratuko azalera-
ra iristen ez den apartamentu batengatik 1.500 erreal brasildar ordaindu behar dira, 400 dolar inguru, Rosangela Gomes de Melo bezalako pertsonen inolaz ere ordaindu ezin duten kopurua, alabarekin batera kobratzen duena hilean 1.900 erreale tara ez baita iristen. «Okupatzea zen neukan aukera bakarra», esan dio France-Presseko kazetariari.

Rosangela eskulangilea da eta 54 urte ditu. Orain bederatzirte urte iritsi zen herrialdeko hiriburu ekonomiko eta finantzarioko erdialdeko Maua eraikinera. Alaba handik pixka batera etorri zitzaion. Hirugarren solairuan duten bizilekua giro bakarrekoa da, behar bezala zatitu eta antolatutakoa. Lo egiteko ohatzea, sukaldea, harraska, hozkailua, apalak, telebistaren mahaia: gauza guztiak pintatu gabeko paretaren kontra jarrita dituzte. Aurreko erabiltzaileek utzitako markak eta marrazkiak ere ikusgai daude oraindik.

ALOKAIRUA ALA HEZKUNTZA?

«Alokairu garestia ordaindu behar izango banu, ezingo nuke alabaren hezkuntzan inber-

tsiorik egin», esplikatu digu emakume langileak. Hamabi milioi biztanle dituen megalopolian oso ona da erdialdean bizitzea, kanpoaldean bizita denbora gehiegi egin behar baituzu garraioan, autobusean, edozein lekutara joateko, Rosangelak esan duenez.

Sao Pauloko Alkatetzak emandako datuen arabera, hiri osoan 206 eraikin handi daude okupatuta eta horietan 46.000 familia bizi dira, gutxi gorabehera. Hiriak etxebizitza gehiago beharko luke beharrrak ondo asetzeko, 358.000, udal arduradunen kalkuluen arabera.

Ondorioz, oso baldintza askarreko 830.000 etxebizitza daude hirian. Arazoa beti egon da hor, baina orain hedabideetan gehiago aipatu dute, joan den maiatzaren 1ean 24 solairuko eraikin batek su hartu baitzuen: behera etorri zen azkenean, makina bat hildako eta desagertutako eraginez.

MUGIMENDUAK, JOMUGAN

Tragedia horren ondorioz, etxebizitzaren aldeko borroka egiten duten mugimenduen zeregina eztabaidagai jarri zen herrialdean, beste behin. Agintariek suntsitutako eraikineko arduradunei leporatu zieten «alokairuak» kobratuta aberastu nahi izana, eraikinaren

mantentze lanetarako dirurik inbertitu gabe.

«Okupazio guztiak ez dira berdinak», argitu digu bere iritzia Rosangelak. Orain tragedia ezagutu duen eraikina ez litzateke adibiderik egokiena, baina beste batzuk bai. MMLJ Justiziaren aldeko Borrokako Etxebizitzaren aldeko Mugimenduak Mauan okupatu zuena, aldiz, eredugarria da, «etxebizitzaren aldeko benetako borroka», ekimen horri esker bizitzeko leku egokia lortu duten 237 familiak 200 erreal jartzen baitituzte hilero, mantentze lanak egin ahal izateko.

Rosangelak eta Beatriz alabak –musika ikasteaz gain, unibertsitatera sartzeko azterketa prestatzen ari da eta laguntzaile lanak egiten dituzte dute aurreiritziek eztabaida nahastu egiten dutela. «Gueza ezberdinak. Jendeak beste modu batean begiratzen gaitu», adierazi du gazteak.

LULA ETA BOULOS

Etxebizitzaren gaia asko aipatzen da Sao Pauloko hedabideetan, Guilherme Boulos Teilturik Gabeko Langileen Mugimenduko buruak presidentetzarako hauteskundeetara aurkezteko asmoa baitauka, preso daukaten Luiz Inacio Lula da Silva presidente ohiaren babesarekin gainera.



Eskuineko irudian, Prestes Maiako eraikineko biztanle bat arropa zintzilikatzen. Behekoetan, Marcia Goncalves Britok etxe okupatuan antolatu duen dendatxoa eta Beatriz Vitoria de Melo ikasten. Nelson ALMEIDA | AFP





Lo egiteko ohatzea, sukaldea, harraska, hozkailua, apalak, telebistaren mahaia: gauza guztiak pintatu gabeko paretaren kontra jarrita dituzte Rosangelak eta alabak

Hamabi milioi biztanle dituen megalopolian oso ona da erdialdean bizitzea, kanpoaldean bizita denbora gehiegi egin behar baituzu garraioan edozein lekutara joateko

Rosangela eta Beatriz bizi diren etxetik gertu dago «Pres-tes Maia» deitzen dioten eraikina, Latinoamerika osoko handiena, hedabideen arabera.

Okupazioaren munduan, kontuan hartu beharreko esperientzia. MMLJ mugimenduak berak zuzentzen du. Ia 500 familia bizi dira bi etxebizitza bloketan banatuta dagoen eraikinean. Prestes Maia etorbideko 911. zenbakian dago, eta arkitekto eta urbanista zenaren izena hartu dute herritarrek eraikin okupatuaren zat ere.

Ehungintzako lantegia izan zen eraikina, jarduera industrialala galdu aurretik. 2006an okupatu zuten eta bere inguruan borroka judizial garrantzitsu bat eramanean aurrera. Orain ia hiru urte, 2015ean, Sao Pauloko Alkatetzak, garai hartan PT Langileen Alderdiak zuzentzen zuenak, erosi egin zuen eraikina, bertan erreformak egin ondoren han bizi zirenei emateko asmoarekin.

Era horretan amaitu zen epaitegietako borroka.

Egungo agintariak ez dira PTkoak, ordea. Kontserbadorei tokatzen zaie hemendik aurrerako erabakiak hartzea, baina oraingoz Prestes Maia barruko bizitza ez da aldatu: erabat komunitarioa da. A blokeak bederatzi solairu ditu; eta B-k, hogeita bi. Txandaka egiten dituzte erabiltzaileek eremu komunetako garbiketa lanak.

Pareten egoera ez da onena eta leiho gehienak egurrezko, plastikozko edo beste material batzuetako estalkiekin babestuta dituzte. Beheko solairuetan hezetasuna handiegia da, oso argi gutxi dute eta filtrazio batzuk ere ikusten dira. Solairu batzuk besteak baino hobeto daude. Segurtasuna bermatzeko kamerak dituzte, su-itxalgailuak nonahi eta atezaintza zerbitzua.

Apartamentu batzuek komun propioa dute, baina kasu gehienetan besteak erabiltzen duten leku berbera erabili be-

har izaten dute. Solairuetan horrelako bi komun izaten dira. Toki horiek erabiltzen dituzte arropa garbitu eta norberaren garbiketa egiteko ere.

Eraikin okupatuetan ere arauak beharrezkoak dira, erabiltzaileen arabera. Bisitarien berri eman behar zaio atezaintza zerbitzuko arduradunari, gaueko 10etatik aurrera debekatuta dute zarata ateratzea, borrokan egitea ez da onartzen, ezta etxekoren bat jipoitzea ere, eta lapurretak espresuki debekatuta dituzte.

Erabiltzailearen batek arau horiek bete gabe utziko balitu, interesatuen arteko elkarriketak emaitza egokirik ematen ez badu, isunak ezartzen dira: bisitarik gabe utzi edo goiko pisuetara bidali bizitzera araubortxatzailea, eta hori oso gogorra egiten da igogailurik gabeko eraikinetan.

GOXOKIAK SALDU

Jeanette Andrade Mauako eraikineko barne koordinatzaileak esplikatu du erabil-

tzaile askorentzat zaila dela «kolektibo» kontzeptua ulertzea. Berak erabiltzaile pobreenentzako arropa eta janari bilketak antolatzen ditu, beraien eskariak jaso, gestio burokratiakoak egin... Kontzeptua esplikatzeko beste modu bat. Andrade bera dibortziatu ondoren geratu zen etxerik gabe eta okupazioaren aldeko mugimenduak «salbatu» egin zuela esaten digu.

«Sao Pauloko alokairuen prezio garestia da hemen arazo. Horrek eragiten ditu irte-narazteak eta bestelako arazoak», dio.

«EZ NEKIEN ZER ZEN OKUPAZIOA»

Marcia Gonçalves 59 urteko herritarrak okupazioa zer den ere ez zekien berari ere banantzea tokatu zitzaionean. «Ez nekien zer zen okupazioa, baina non bizi ere ez neukan», gogorarazten du. Goxokiak eta edariak saltzen ditu eraikinean zabaldu zuen denda txikian. Ez digu esaten zenbat ateratzen duen, baina bai ez litzatekeela nahikoa izango eraikin normal batean alokairua ordaintzeko. Hemen hilean 105 erreal ordaintzen ditu, ekarpen moduan. «Hau txikia da eta ez dago luxuzko ezer, baina era duinean bizitzeko moduan gara. Nire ametsa hemengo etxebizitzaren bat niri ematea izango litzateke», esan du.

1.523 kilometro koadroko azalera dauka hiriak. Trafikoa oso kaotikoa du, zazpi milioitik gora automobil baitaude erroldan.

KROAZIA

Kolinda Grabar-Kitarovic presidente kontserbadorearen asmoari kiratsa dario

 POLITIKA / joseangel.oria@gaur8.info

Eta Errusiako joko zelaian asteotan Grabar-Kitarovicek egin dituen mugimenduak, bere iragan ilun eta onartezinena ezkutatzeko estrategia baten zati baino ez omen dira.

Analista batzuek «maitagarri» hitza erabili dute emakumea deskribatzeko, beste batzuek haren joera politikoa azaltzeko «hiperpopulista» esaten duten bitartean. Protokoloa ez dago Kolinda Grabar-Kitarovicentzat eginda: bere selekzioak gola sartzen zuen bakoitzean, zalerik sutsuenaren pare jartzen zen. Eta telebista kamerek, jakina, bazuten nora begiratu.

Eman nahi zuen irudia elikatzeko, Kroaziako Gobernuak baieztatu zuen presidenteak Errusian egin zituen egunetako soldata ez duela kobratuko. Gainera, hegaldiak bere poltsikotik ordaindu zituen, partidetako sarrerekin egin zuen moduan. Hegazkinean eserleku

merkeetakoak hartu zituen eta estadioetan eskaini zioten VIP gunera joateko aukerari ezetz esan zion. Gainerako zaleekin batera oihu egin eta disfrutatu nahi zuen Grabar-Kitarovicek.

Partida bakarrean egin zuen kale presidenteak: Ingalaterraren aurka jokaturako finaler-

dia bertatik bertara ikusi gabe geratu beharra izan zuen, Belgikara joan baitzen NATO erakundeak egin zuen gailurrean esku hartzera. Kontuan hartu behar da politikariak berak Aliantza Atlantikoan egin zuela lan, 2011. eta 2014. urteen artean, hain zuzen ere. Bruselan gainerako agintariekin zegoela, Donald Trump AEBetako presidenteari eta egun hartan aurkaria zuen Theresa May Britainia Handiko lehen ministroari Kroaziako kamiseta bana eman zien. Gailurra utzi eta berehala joan zen Moskura, Frantziaren eta Kroaziaren arteko finala hartu behar zuen hiriburura.

Finala galdu egin zuten kroaziarrek, baina baldintza horietan ere Grabar-Kitarovicek bere irudia handitzen jarraitu zuen. Emmanuel Macron presidente frantsesa bera ere esutu zuen, inoiz ikusi gabe gunden «besarkada festan». Gainera, kristauen santuen pare jartzeko, Moskuko hodeiek beren karga askatzea erabaki zutenean, berehala zabaldu zuten antolatzaileek aterki beltz handi bat Vladimir Putin Errusiako presidentea busti ez zedin (badaezpada ere), frantsesa eta kroaziarra blai eginda zeuden bitartean. Bost axola kroaziarrari.

Mediatoolkit datuen analisi egiten duen etxearen arabera, Grabar-Kitarovicek selekzioak berak baino oihartzun handiagoa izan zuen finala jokatzen ari zela: %25 gehiago. Luka Modrici Urrezko Baloia eman zioten, futbolariarik onena izan zelako, baina berak ere ezin izan zuen presidentearen presentzia gainditu.

Kroaziako hedabideek diote une honetan presidentea dela herrialdeko pertsonarik eza-gunena, eta hori oso ona da



politikan arrakasta izan nahi duenarentzat.

Berrogeita hamar urte ditu lau hizkuntzatan egiten duen emakumeak. 2015ean, presidente kargura iristen zen lehen emakume bihurtu zen. Baina azken bolada honetan agertu duen zaletasuna bera ere susmopean jartzeko modukoa da, Dejan Jovic politologo kroaziarrak esan duenez. Berak egiten duen irakurketaren arabera, «beti gizonezkoenak izan diren eremuak» mendean hartzeko baliagarria da futbol zaletasun hori, gaitasun handiko buruzagi moduan agertzeko, baina herritar gehienek babesa galdu gabe. «Bere ikuspegi politikoari dagokionez, kontserbadorea da, populista eta nazionalista, nahiz eta Munduko Futbol Txapelketan ikusitakoak ikusita zaila egiten den hori horrela dela sinistea», Zagrebeko Unibertsitateko Zientzia Politikoe-tako irakasleak esan duenez.

Politikan hasi aurretik, Kolinda Grabar-Kitarovicek urtebete egin zuen AEBetan, ikasten. Kroaziara itzuli eta Hispaniar eta Ingeles Literaturako ikasketak egin zituen. Ikasle zela, Zientzia eta Teknologia Ministerioko aholkulari lanetan hasi zen. Kroaziak Kanadan duen Enbaxadan hiru urte egin zituen ondoren. 2000ko hamarkadan Gubernura itzuli zen, Europar Gaie-tarako ministro izateko, Atzerri ministro bihurtu aurretik. Ondoren itzuli zen AEBetara, aurkariak ahaztu nahi ez duten lehen eskandalua gertatu zen herrialdera: bere senarrak Enbaxadako automobil ofiziala askotan erabili zuen bere kontu propioetarako, eta Kolindak Grabar-Kitarovicek berak ere bai, noizbait. Gaizki gastatutako dirua itzuli zuen



Kroaziako eta Frantziako futbol selekzioek Moskun jokaturako finaleko bi une. Alboko orrialdean, Frantziako eta Kroaziako presidenteak. Lerro hauen gainean, ohorezko palkoan jasotako irudia. AFP

berria zabaldu ondoren, baina beranduegi zen kaltea saihesteko. Zagrebeko Gobernuak bera ere erortzear egon zen. 2010eko eskandalu hura kontuan hartuta, hobeto ulertzen da orain presidenteak gastu guztiak bere poltsikotik ordaindu dituela horrenbestetan esan behar izatea.

Onarpen mailak behera egin zuen garai hartan. Edonola ere, NATOk fitxatu egin zuen eta 2015ean egun duen postua lortuko zuen. Doktoretza ikasketak amaitzen ari da unibertsitatean, presidente karguak ez baitio horrenbeste denbora eskatzen.

Giza eskubideen defendatzaileek salatzen dutenez, Ko-

linda Grabar-Kitarovicen eta bere Kroaziako Batasun Demokratikoa izeneko alderdiaren ikuspegia xenofobia da, 2015eko errefuxiatuen krisian garbi ikusi ahal izan zenez. Gobernuak berak baino jarrera gogorragoa, erradikalagoa, izan zuen presidenteak eta momentu jakin batean mugak babesteko Armada bidaltzeko aukera aipatu zuen. «Egungo lehen ministroa baino kontserbadoreagoa da alor guztietan», esan du Dejan Jovic politologoak. Muturreko jarrera horrek eraginda, Europar Batasunak eta Amnesty Internationalek ere errieta egin zioten Kolinda Grabar-Kitarovici.

Presidente gehiago kezkatzen du beste exodoak, ordea; Kroaziatik alde egiten duten herritarrenak: «Bere profil politiko tradizionalistak agintzen duenez, kezkatuago dago herrialdetik joan diren kroaziarrengatik, Kroazian bizi nahi luketen etorkin edo errefuxiatuengatik baino. Lehenengoak asko dira, eta besteak oso gutxi». Kroaziaren populazioak behera egin du azken 30 urte-

otan. Eta Kolinda Grabar-Kitarovicek uste du joera horrekin segituz gero, biztanlerik gabe geratuko litzatekeela Kroazia. Jaiotza tasak gora egin dezan neurriak hartzeko eskatu zion Gobernuari, bere garaian.

Orain, berriz, futbol selekzioak sekulako arrakasta lortu duela-eta, optimismo hori erabili nahi du gazteak herrialdean gera daitezen, migratzera behartzen dituen pesimismoa gaindi dezaten. Pesimismoa baita, presidentearen iritziz, Kroaziak duen ezaugarriarik inportanteena, alde egitera bultzatzen duena. Giro nagusia aldatzea litzateke irtenbidea.

Grabar-Kitarovicen arrakastaren arrazoietakoa bat Gubernua kritikatzeko bere joera da; eskuinekoa zein ezkerrekoa izan, berak egurra eman izan die betidanik, eta gizarteko sektore zabal batzuegana iristea lortu du: «Kritiko izanda, baztertutako pertsona batzuk hurbiltzen zaizkio; eta bere erretorika eta jarrera nazionalistak, erakargarriagoa egiten du eskuineko sektore batentzat».

Mediatoolkit datuen analisia egiten duen etxearen arabera, Grabar-Kitarovicek selekzioak berak baino oihartzun handiagoa izan zuen finala jokatzeko ari zela: %25 gehiago

«Bere ikuspegi politikoari dagokionez, kontserbadorea da, populista eta nazionalista, nahiz eta Munduko Futbol Txapelketan ikusita zaila egiten den hori horrela dela sinistea»



Oier Gorosabel
Fisioterapeuta eta osteopata

Atleta zaharrarena

Nire pazienteen osasuna hobetzeko gomen-dio nagusietako bat ariketa fisikoa izaten da. Gero eta gehiago, ebidentzia zientifikoak argi erakusten du gorputza mugitzean dagoela ondo mantentzeko eta lesioak sendatzeko gako nagusia: korrika bizian, korrika txikian, oinez, bastoiarekin edo ahal den modura, baina mugitzea komeni da. Hori esatean, baina, paziente batzuk uzkur agertzen zaizkigu; kirolik sekula egin ez duen jende nagusiak, batez ere, ez du bere burua praka motzetan eta elastikoarekin ikusten. «Nire adinarekin, nola hasiko naiz ni kirolean? Barre egingo didate». Ideia oker horren kontrako txertorik onena Valenti Huch More kataluniarren bizitza ezagutzea da.


Valenti Huch 1919an jaio zen Gironako herri txiki batean; baina berak bost urte zituela familia Bartzelonara joan zen. Haur denboran, eskola bost kilometrorra zuen eta egunero lau bider egiten zuen bide hau, askotan lasterka; egunero hoge kilometro, beraz. Hauxe zen bere kirola, kaleko jolasekin batera; urte haietan jende normalak ez baitzuen izaten kirolik egiteko aukerarik, bizirautearekin lanpetuegi. Bere familia ere ez zen aberatsa, eta urte haietan etxean laguntzea tokatu zitzaion: astero hoge kilometro patata zakua ekartzen zuen Bartzelonatik Vic-era, bizikletan; hirurogeita bost kilometro joateko, eta beste horrenbeste zamarekin itzultzeko. 1936. urtea zen, eta hamasei urte zituen.

Bi urte geroago, Espainiako Gerra Zibilean borrokatzeko txanda eto-

rri zitzaion: Errepublikako Herri Armadaren baitan Ebroko fronteko borroka gogorretan jardun zuen, eta handik bizitza osoan lagunduko zioten oroigarriak ekarri zituen: oinean, orkatilan eta birikan metraila zatiak; zaurietatik osatuta Bartzelonara itzuli zenean, kartzelatua izan zen. Gero II. Mundu Gerra etorri zen, kontzentrazio esparruak ere ezagutu zituen, eta soldadutza aldi luze hau 1945ean amaitu zuen. Ostean, SEAT lantegian hasi zen, eta orduko behargin baten bizimodu normala eraman zuen urte askoan: kirol askorik ez, eta 43 urte bete arte tabakoa erre. 1982an jubilatu zen, 60 urterekin; horrekin batera lasterketa batean izena ematea otu zitzaion, eta horixe izan zen bere bizitza berriaren hasiera.

Lasterketa horretan izandako emaitza onak animatuta, kiroldegian entrenatzen hasi zen; lehenengo ari- neketan, eta gero beste zenbait proba atletikotan ere hasi zen: luze- ra jauzia, mailua, xabalina... 80 urterekin probak irabazten hasi zen eta Katalunia, Espainia eta Europa- ko txapelketetan markak hautsi zituen, 30 plusmarka baino gehiago lortzeraino. Adinean aurrera egin ahala, 95 urterekin bere kategorian aurkaririk gabe gelditu zen. Halere, txapelketetan parte hartzen jarraitu zuen, eta goizero Montjuic-eko kirol instalazioetan entrenatzen, aurren 98 urterekin hil den arte. Eredugarria, aktibitate fisikoan hasteko erreparoa edo lotsa duten pertso- nendako. Ez duzue uste? •

www.abante.eus



«Nire adinarekin, nola hasiko naiz ni kirolean?»

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Maravillasen irakaspenak; bi kontraesan eta post data bat

Larritasun handiz bizi izan zen Nafarroan pasa den astean Maravillas gaztetxearen inguruan piztutako liskarra. Eta ez zen gutxiagorako, giza mailan polizia oldartzearen arriskuak begi bistakoak zirelako eta arlo politikoan “Aldaketa” deitu denaren sinesgarritasuna kokolan jartzen zelako. Hain larria al zen benetan egoera? Hustearen arriskua behin-behinean saihestuta, egunak pasa eta egoera bareturik, komeni da distantzia pixka bat hartu eta auzia perspektibaz aztertzea. Nabarriariako eraikin horrek bi kontraesanez talka egin duten bidegurutzea markatzen duelako. Eta, Maravillasek bezala, bi kontraesan horiek ere hor segitzen dutelako, nortzuek, nola eta noiz kudeatuko zain.

Lehen kontraesana, aurretik Gipuzkoan eta orain Nafarroan agerrarazia, herri mugimenduen nahien eta erakundearen ahalmenaren artekoa da. Herri mugimenduak zein erakundeak norabide bertsuan joan arren, lehentasun, jokamolde eta erritmo ezberdinak dituzte batzuek zein besteek. Eta teoria aski ezaguna bada ere (herri mugimenduek bidea aurretik zabaldu eta erein, ostean erakundeek orube horren gainean eraldaketak eraiki ditzaten), berau praktikara eramatea ez da erraza. Esaterako, beren autonomia ozen aldarrikatzen dute mugimenduek behin eta berriro, baina, noski, erakundeek ere autonomia beharko dute harreman zintzoa nahi bada. Kanean gehiengo eta erakundeetan gutxiengo izanik ez da Aldaketarik izango, ez eta kanean gutxiengo eta erakundeetan gehiengo izanik ere. Biekin izango da edo ez da izango.

Bigarren kontraesana, berez, kontraesana baino gehiago ere bada. Sarri ahazten den arren, indar askoren artean garatzen ari da Aldaketa (lau dira izenez, gehiago izatez). Ez luke inor harritu beharko Geroa Baik eta EH Bilduk gaztetxeei buruz iritzi oso ezberdinak izatea, objektiboki begiratuta potoloagoak diren beste arazo batzuen inguruan ere desadostasun nabariak dituz-

te-eta, abiadura handiko trena erakusle garbiena. Baina, berriz, Aldaketa sendotu nahi baldin bada, hauteskundeak begira ez da engainatzeko tarterik: egungo indar guzti-guztiak izango dira gehiengoari eusteko ezinbestekoak. Aldaketa guztiekin izango da edo ez da izango.

Post data orain, aurrekoaz aparte (edo agian ez, estuki lotuta): izanez eta bizi izanagatik, pertsona handia da Josefina Lamberto, ikaragarri handia. Maravillas ahizparen bortxaketak eta hilketak frankismoaren izugarrikeria bere gordintasun osoan irudikatzen du, eta bete-betean asmatu du gaztetxearentzat izen hori aukeratu duenak, Larragako neskatoa eta Iruñeko egungo gazteen artean nolabait 80 urteko haria luzatuz. Baina Josefinak beste zerbait ere islatzen du, nere irudiko: 1936an hasi zen tunel beltzaren ondorengo argia. Bero- nek azaldu du sufritutako eta gaitututako guztia: aita

Ez da Aldaketarik izango kanean
gehiengo izanik eta erakundeetan
gutxiengo, ez eta kanean gutxiengo eta
erakundeetan gehiengo izanik ere

eta ahizparen hilketaren ostean, amari ezarritako pobrezia, berau serora joan beharra, Pakistango urte latzak, Elizarekin hartutako desengainua... eta gero, azkenik, behin Nafarroara itzulita, aitortza, arnas berriak, irauli politikoa, hiltzaile haien porrota... Iraultza handi baten ikur da, hortaz, Josefina Lamberto, Nafarroako historian “lau urteko iraultzatxoa” baino gehiago izatea merezi duen Aldaketarena alegia. Txikikeria litzateke, beraz, gaztetxe baten irudi izatera murriztea, nahita ala nahi gabe, are gutxiago erreferentzia hori Aldaketarako ezinbesteko diren beste indar batzuen aurka erabiltzen bada. Ez ahaztu 1936ko odolustearen biktima asko egun Geroa Baiko kide izango zirela. Maravillas ugari agian. Aita bera, Vicente, UGTkoa zen. •

ITSASOA SALBATZEKO, ARTEA

Ozeanoetako plastikozko hondakinak edertasun eta heziketa iturri AEBetan

Bai, arteak modu oso ezberdine-tan komunika-tzeko ahalmen itzela du. Artela-nek hitz egiten diete ikusleei eta eragin bat, zirrara bat sortzen diete modu ezberdin eta partikularrean. Hain zuzen ere, ikusle bakoitzak bere jakintza eta espe-rientzia propioen testuingu-ruan ikusten dituelako artelanak. Zentzu horretan, ja-rraian aurkeztuko den arte proiektuak esperientzia sub-jektibo boteretsu bat sortzen du. Eta bere esperientzia pro-pioa bizitzeaz gain, artelan monumentalok ikusten ditue-nak, ekintza zehatzak egiteko

 **ARTEA /** Mikel Zubimendi Berastegi

Arteak hizkuntza bat da. Estetikoki boteretsua denean, gainera, ikuslea sakon inpaktatzen du, sentsuak esnatu, kontzientziak piztu eta arazo globalen aurrean soluzioak bultzatzen ditu: kasu honetan, ozeanoetako plastiko kutsadura. Helburu horrekin, bada, hondakinak artelan bilakatzen ditu AEBetan Washed Ashore proiektuak.

eta jakintza komun baten oi-narria sortzeko artistek disei-natutako mezua jasotzen du. Imajinatu, esate baterako, itsasoan gora eta behera ibili ondoren lehorreratzen diren

Beheko irudian, ezpata-arrain bat irudikatzen duen eskultura. WASHED ASHORE PROJECT

milaka ur mineral botilekin egindako marmoka eder eta ikusgarri baten eskultura ikus-ten zaudela. Imajinatu, ondo-ren, artelan horren xedea zuk itsas dortokek plastikozko pol-

tsak marmokekin nahasten di-tuztela jakitea dela; hau da, plastikozko poltsa horiek jaten dituztela, eta, horregatik bes-teak beste, galzorian daudela itsas dortokak. Imajinatu espe-rientzia subjektiboa, pasatzen den mezua, arte horrek zugan izan dezakeen inpaktua.

Washed Ashore du arte proiektuak grazia, eta Amerike-tako Estatu Batuetako Oregon estatuan jatorria. Milaka bolun-tariok, bertako hondartzetatik tonaka zabor bildu, garbitu eta klasifikatu ondoren, plastikoz-ko hondakinekin egindako es-kultura erraldoiak sortzen di-tuzte. Inpaktu izugarria izan duten 65 eskultura egin dituzte dagoeneko, tamaina monu-mentalekoak batzuk; plastikoz-ko zabor objektuak edertasun bilakatuta, artearen bidez hon-dakinei xede eta bizitza berri bat eman diete.

Ekintzarako artea

Washed Ashore proiektuaren misioa argia da: itsas hondaki-nekin egindako eskulturek Ameriketako Estatu Batuak ze-harkatzea ahalik eta jende gehienarengana heltzeko as-moz. Heziketa programa baten bitartez, itsas hondakinen eta plastiko kutsaduraren arazoa ahalik eta herritar gehinenga-na eramaten saiatzen dira ar-tearen bitartez.

Eskulturak eraikitze, lehe-nik eta behin hondartzetatik auzolanean ateratako honda-kinak biltzen dituzte. Gero, hondakinak garbitu egiten di-tuzte, klasifikatu eta sorkun-tza prozesurako prestatu. Es-kultura bakoitzaren diseinua eta zuzendaritza artista batek hartzen du bere gain, eta erai-kitze prozesuan proiektuko ki-deek, boluntarioek, ikasleek zein beste artista batzuek par-te hartzen dute.



Artearen hizkuntza unibertsalak jendearengana iristeko gaitasun itzela du, ia beste ezerk ez bezala. Estatistikak, zenbakiak, liburuak, mapak baliagarriak dira gertakizun larriak zehazki adierazi eta planak egiteko, baina arteak begietara begiratu zaitzake, zure bihotza uzkuertzeraino; hori dela eta, gauzak egitera, ekintza zure gain hartzera bultzatzen zaitzake arteak.

INPAKTU ITZELEKO ARAZO GLOBALA

Gure planetaren azaleraren %70 hartzen dute gaur egun ozeanoek, habitat handiena dira, planetaren espazio bizigarriaren %99. Eremu itzel horrek, gainera, planetako espezie guztien %50 hartzen ditu baitan.

Baina, zenbat plastiko dago gaur egun ozeanoetan? Zaila da galdera horri erantzun zehatz bat ematea. Smithsonian Biologia Institututuko zientzialaria den Mary Hagedorn adi-tuaren arabera, 142 miliar tona inguru. Erraz, errazegi idazten da.

Itsas hondakin horien guztien %80 ez dira zuzenean itsasoarekin lotutako jarduera ekonomikoen ondorioz sortutakoak. Lurretik heldu dira itsasora, kaleetatik itsas korronteetara, ibaietatik ozeanoetara. Eta, jada, kate trofikoaren oinarrian dagoen eta biodegradagarria ez den plastiko kopuru horren inpaktua izugarria da, ekosistema bera arriskuan jartzerainokoa.

Bestalde, ozeanoetako plastiko kutsaduraren arazo handia, are arazo handiago baten sintoma bezala ere uler daiteke. Alegia, kontsumitzaileen aukera eta ohiturena (eta hori esaterakoan, ez da inor errudun sentiarazi nahi egunero-koan erabiltzen dituen plasti-



Goian, itsasoak lehorreratutako orraziak, txiskeroak, tapoiak... erabiliz eginiko izokin erraldoia. Behean, eskuinean, lanperna-musubat. Behean, ezkerrean, hipokanpo baten ondoan, Angela Pozzi artista eta hezitzailea. Plastiko hondakinak ozeanoetan eragiten ari diren hondamendiaz jabetuta, Washed Ashore proiektua sortzea erabaki zuen Pozzik. WASHED ASHORE PROJECT





koengatik), eta tokian tokiko eta mundu mailako hondakin fluxuena.

OZEANOAK EMANDAKOA ERABILI

Marrazoak, marmokak, itsas lehoiak, olagarroak, hartz polarrak, mota guztietako itsas hegazti eta arrainak plastikozko hondakinak soilik erabiliz sortuz, Washed Ashore proiektuak estetikoki oso botereitsuak diren artelanak sortzen ditu. Plastiko kutsadurak ozeanoetan eragindako hondamendiaren jakitun egin nahi dituzte herritarrak, museo, herriz herri, eskolaz eskola. Bide batez, kontsumo ereduaren aldaketa positiboak ere bultzatu nahi dituzte.

Artelanotan ez da margolari paletarekin egindako tranparik, itsasotik edo hondartzetatik ateratako objektuak garbitu besterik ez dituzte egiten, sekula ere ez dituzte pintatzen. Ozeanoak emandakoa erabiltzen dute bakarrik. Eta horrek, jakina, ondorioak ditu sortze prozesuan. Adibidez, kolore marroia duten objektuak bilatzea zailagoa denez, marroiak diren itsas lehoien eskulturak egiteak denbora askoz gehiago eskatzen du; zuri, gorri edo gardenak diren ob-

Goian, ezkerrean, olagarro baten eskultura, eta, eskuinean, itsas txakur batena. Ezkerretara, zaborrez betetako hondartza bat; argazkiak argiro erakusten du plastiko hondakinen arazoaren neurria. WASHED ASHORE PROJECT



ERABILI ETA BOTA, BIZIMODUAREN MASKARA

Maskarak, kultura ezberdinetan, milaka urteetan zehar, material ezberdinez egin izan dira. Babesteko, mozorrotzeko, dibertitzeko, erritualetarako, istorioak kontatzeko, etsaiak beldurtzeko, zeremonia eta antzerkietan erabiltzeko... denetarako maskarak egon dira. Sarri, herri, animalia eta arbasoen ezaugarri jakinen sinbolo bezala ere erabili dira.

Plastikozko objektuekin egindako arteak maskara erraldoiak egiten ditu,

maskara ekologiko handi-handiak. Maskaron kasuan, gure garaiko gizartearen nagusi den “erabili eta bota” ereduaren oinarritutako bizimodua irudikatzen da, alternatiba ekologiko baten aldeko lan pedagogikoa eginez, kultura indartuz, denon artean ohitura osasungarriak sortzeko beharra nabarmenduz. Guztiok ekarpena egin dezakegula ere oroitarazten digute, denok ohitura bat aldatuko bagenu mundua aldatuko genukeela.

jektuekin eskulturak egitea, al-
diz, askoz errazagoa da.

Esan bezala, tonaka plastiko
prozesatuz, itsas zaborraren
krisi globalaren aurrean ikus-
leen buruak eta bihotzak esna-
tzeko gaitasuna duen arte
adierazpide ikusgarri batez ari
gara. Nagusiek eta haurrek,
biek ulertzen duten hizkuntza
bat sortzeko gai dena.

ARTE PEDAGOGIKOA


Bestalde, helburu hezitzaileak
dituen arte adierazpidea dela
ezin da ukatu. Lehenik eta
behin, ozeanoak maitatzea bi-
latzen du: bere itsasertz eta
biztanleak ezagutaraztea. Hel-
buru argi batekin, kontzien-
tziak piztea, itsasoari eragin-
dako minak gu guztiok nola
mintzen gaituen ulertaraztea.

Plastiko kutsaduraren ingu-
ruko lan pedagogikoa ere ba-
dago proiektuaren atzean:
itsas hondakinak ulertzea,
nondik datozen, nola heltzen
diren itsasora, nola bidaiatzen
duten ozeanoetan barna, be-
ren inpaktu ekologikoaren he-
dadura osoa barneratzea. Du-
darik gabe, arteak animatu
egiten du, hezi: artean oinarri-
tutako hizkuntza bat erabil-
tzen da plastiko kutsaduraren
aurrean kontzientziak esna-
razteko, arazo global baten au-
rrean soluzioak bultzatzeko.
Birziklapenaren beharra, ob-
jektuei bigarren bizi bat ema-
tearen garrantzia ulertzeko.

Azkenik, ekologiaren aldeko
ahalegin komun bat ere bada
proiektuaren atzean: ohiturak
aldatu plastikoak ez erabiltze-
ko, erosketak birpentsatzeko,
ekologikoagoak diren kontsu-
mo ereduetan murgiltzeko.
Norbanakoak, komunitateak,
gobernuak eta enpresak oina-
rri izango dituzten aldaketak
bultzatzeko. Eta hori guztia,
artearen bidez komunikatuta.



Goian, museo batean jarritako hartz polar ikusgarria. Behean,
ezkerretara, bi itsas arrain koloretsu.
WASHED ASHORE PROJECT





Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:

"LEGASAKO ALKATE OHIARI BURUZ 1913AN ENKARGUZ JARRITAKO
BERTSOENGATIK KONDENATU ZUTEN TXIRRITA 1916AN IRUÑEKO AUZITEGIAN"



Hizkuntzak

Joxean Agirre

Oporretan, neure hizkuntzen eremutik atera orduko, lau esaldi jarraian esaten ez dakien atzeratu baten traza hartzen diot neure buruari eta Nestor Basterretxeak aipatu ohi zuen pertsonaia bat datorkit gogora: Pas de Calais-ko hotel baten atezain lan egiten zuen emakume espainiar batek 40 urte zeraman Frantzian. Gaztelania ahazturik zuen baina frantsesa ikasi gabe eta anabasa arraro bat egiten omen zuen. «*Si ancora tomas de la viera, te vas a agarrar una feblesa*» esan zezakeen, edo «*estas crevettas tienen du sable*». Nahasketa linguistikoak emakumeari berari ere grazia egiten zion nonbait eta esaldi bakoitzaren ondoren algara bat egiten omen zuen.

60ko hamarkadan, oso bakanak eta oso bestelakoak ziren gure artean poliglota. Mirande aipatzen zen. Bagenekien Krutwigek, Arestik edo Kintanak euskara hila-bete gutxitan eta beren gisara ikasi zutela. Juan Mari Lekuona, moda berriei aiduru beti, esperantoa ikasten ari zela esaten ziguten. Xabier Mendiguren Bereziartuk hizkuntzak ikasten zituela. Haren ezagunei galdetzen genien «zerekin ari duk orain?» eta «errusierarekin» erantzuten ziguten eta txundituta gelditzen ginen.

Orain poliglota izatea obligazio bihurtu da ia-ia, nahiz eta lehen zuten haloa galdu duten. Horretarako daude hizkuntza eskolak. Baina ni saiatzen naizen bakoitzean lehengo erara ikasi nahi izaten

ditut eta emaitzak hutsaren hurrengoak izaten dira. Dagoeneko esperantza bakarra daukat: Oliver Sack-en liburuetan agertzen diren pazienteen antzera, egunen batean buruan kolpe bat hartu eta hizkuntzaren bat hitz egiten hastea.

Egun gutxi barru noa oporretara eta ez zitzaidan gaizki etorriko kaskarreko on batek buruan dudak korapiloa askatuko balit eta erosotasun apur batekin Europako pare bat hizkuntza txukun antzean hitz egiten hasiko banintz. Hori gerta da-kidan bitartean nire esperanto bereziarekin moldatu beharko dut eta Nestorren atezainak bezala «crevettak» jango ditut hondar aleekin edo «flebesak» harrapatuko ditut garagardoarekin. •

Bizi zitezkeenak

Nekane Zinkunegi
Barandiaran

Liz izendatu dute haren intimitatea babesteko. 24 urte zituen eta Argentinako Senatuak Abortua legeztatzeke lege proiektua atzera bota eta ia astebetera hil zen. Senatuaren erabakiaren ondoren abortu klandestino batek eraildako lehen emakumea izan da.

Perrexil zurtoinarekin haurdunaldia eteten saiatu zen eta horrek eragindako shock septikoaren eta infekzioaren ondorioz joan behar izan zuen erietxera. Han umetokia erauzi eta zainketa berezietara bideratu bazuten ere, larriegia zen haren osasun egoera bizirik atera

ahal izateko. Artatu zuen medikuetako batek esan zuen urteak zirela perrexilarekin lotutako kasurik esku artera iristen ez zitzaiela.

Hori dakar klandestinitatera kondentuta egoteak, baldintza egokietan abortatzeko aukerarik ez izateak eta kartzelara joateko beldurrak. Baina ez hori bakarrik. Legezko abortuaren aldeko mugimenduak sekulako urratsak egin baditu ere, Senatuan atzera bota izanak gizarte bereizketa areagotzen du. Abortatu ondoren konfesatzera joan eta bekatutik libre geratzen diren emakume aberatsen eta

klandestinitatean abortatzeagatik hiltzen diren emakume behartsuen arteko bereizketa iraunarazten du. Abortatu ondoren ikasten jarrai dezaketen familia aberatseko alaben eta haurdunaldia hala nola eten dutelako Poliziak jazar ditzaketen nesken arteko bereizketa eragiten du.

Jaio gabeek oroitzeak bizi zitezkeenez ahaztera daramatza pentsaera ustez garbikoak. Jaio gabe geratutako haurrak nora iritsi zitezkeen espekulatzeke tranpa egiten duten bitartean, baldintza kaskarretan abortatzeagatik hildako emakumeak zer izan zitezkeen ahaztu nahi dute. •



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Mihisea

Mihise batekin estali zuten diktadorearen gorpua arnasa hartzeari utzi zionean. Inork ez zuen hitzik egin. Gutxi batzuk geratzen ziren logelan ordurako, hurbilekoenak, konfiantzazko jende hori, gerra bat irabazteko hain beharrezkoa dena. Bazekiten noizbait gertatu behar zuela, hilabeteak zeramatzan hiltzorian eta azkenean, hiru bihotzeko eta gero, peritonitis batek eraman zuen bizidunen artetik behin betiko. Goizeko hamarretan etorri zen Arias Navarroren aurpegiera goibelarekin batera historiara pasa zen esaldi famatua: «Espainiarrok, Franco hil da». 1975eko azaroaren 20a zen.


Berrogeita hamar orduraz eduki zuten hil-kapera zabalik hurrengo egunetan hura ikustera joan nahi zuenarentzat. Hirurehun eta bostehun mila pertsona inguru hurbildu omen ziren Madrileko Ekialdeko Jauregiraino Francori azken agurra egitera. Hiletarako Eroritakoen Haranera eraman zuten gorpua eta bertan lurperatu. Monakoko Raniero printzea, Jordaniako Husein I.a erregea eta Augusto Pinochet jenerala izan ziren elizkizunetara hurbildu ziren garaiako estatuburu bakkarrak. Haiekin batera, Errepublikarekin bukatu eta hurrengo berrogei urteetan zehar egindakoagatik beraien esker ona eta fideltasuna erakustera bertaratu nahi izan zuten beste milaka eta milaka jarraitzaile.

Ondo gogoan du Juan Sotok egun hura. Ez luke esango poza sentitu zuenik, amorrurik ere ez ordurako, etsipen moduko bat agian eskuetako izerdia praktetan lehortzen zuen bitar-

tean. Bartzelonan atxilotu ondoren, homosexuala izateagatik Langraizko kontzentrazio esparruan pasatako urteak etorri zitzaizkion gogora albistea entzun eta minutu gutxira. Harrobian bizia galtzea edo militar baten etxean umiliatua izatea. Bizirik atera nahi zuelako aukeratu zuen Juan Sotok, 1940an Langraizera preso eraman zutenean, pauso bat aurrera eman eta homosexuala zela esatea; guardia baten etxean zerbitzari lanetan aritzeagatik baino, harrobiko lanetan hilda ez bukatzearren. Kontzentrazio esparru izatetik kartzela izatera pasa zen handik urte batzuetara eraikina. Garai berriak ziren. Gerra galdu zutenen debaldeko eskulanari esker altxatako zimenduen gainean kartzela berri bat. Eta beste bat haren gainean duela ez hainbeste. Kartzelak txiki geratzen zaizkion herrialde baten historia laburbiltzen duen matrioxka.

Langraizko kontzentrazio esparrua bezala, Eroritakoen Haraneko monumentua ere gerran preso hartutako

errepublikazaleen lanari esker altxa zen. Bertan lanean emandako egun bakoitzagatik bost egun gutxiago pasako zituzten preso trukean beraien buroak eraikuntza lanetarako eskaintzen zituztenek. Hemezortzi izan ziren hildakoak guztira Eroritakoen Haranean, ehun eta hoge inguru Langraizko kontzentrazio esparrua eraikitzeko lanetan eroritakoak. Mihise batekin estali zituzten hildako horien denen gorpuak gero. Memoria bezain erraz urratzen den mihise baten azpian iraun du haien egiak gaur arte, harri astun haien azpitik noiz aterako. •



Irudia: Alejo MORENO SAINZ

{ koaderno } **Xabier Izaga**

Patxada subjektiboa

PP eta Ciudadanos alderdi espainiarrak Francoren gorpuzkiak Erorien Haranetik ateratzeko dekretuaren aurka agertu dira, hartarako presarik ez dagoelako. Gogoa behar da, gero, hildakoen betiereko atsedena aztoratzeko.

Diktadorearen gorpua hobotik atera ondoren Erorien Haranak zer erabilera izango duen ere eztabaidatzen hasi omen dira. Batzuen asmoa Auschwitzeko kontzentrazio-esparrua bezala memoria gune bihurtzea da. Poloniakoa nazismoa garaitu bezain laster egin zuten. Zergatik ez zuten gauza bera egin frankismoa amaitu eta berehala? Ez zelako garaitua izan, akaso? Ez zen, ez, garaitua izan; aitzitik, beti izan da garaile, baita amaitu zenean eta ondoren ere. Eta garaileak garaituak behar ditu garaile izateko.

PPko presidente Pablo Casadok esan berri du orain dela 40 urte «bi bandoen arteko itun» bat izan zela. Uste dut esan nahi duela frankisten eta beste-en –antifrankisten, demokraten...– artekoa. Eta Casadoren alderdia zer bandotan zegoen/dago? Besteenean? Berehala esango nuke! Eta berrogeita gehiago urtean demokraziaren berme izan omen den erregea zer bandotan zegoen? Bandoz aldatu zen?

Jakin nahi nuke (esaldi erretorikoa da) zein ziren itun hura egin zuten bandoak: alde batean frankismoa eta bestean AP, UCD, PSOE, PCE...? Edonola ere, ituna egin eta bando bera osatu zuten denek, bando konstituzionala, frankistak ere bere baitan hartu zituena. «Bi bandoen arteko itunak» inpunitatea bermatu zien frankistei, bistan da, baina hori baino askoz gehiago ere bai: Estatuaren kontrola. Armadan, epailetzan, zenbait alderdiren zuzendaritzan... denek izan zuten beren lekua, gorputz polizialek bezala parapolizialek ere. Denek, itun eredugarri hura onartu ez zutenak izan ezik.

Hau, jakina, kontakizun subjektiboa da. Nik ezagutu nuena. Ez da egia ofiziala, ezta judiziala ere (eta, beraz, bakarra, ezta, ministro jauna?).

«Honela frankismoa sostengatzen dugula uste duenak ez du ez PP ez haren parte den jendea ezagutzen», esan zuen Teodoro Garcia alderdi horretako idazkari nagusiak. Hala da, nonbait, artaburu ezjakinak gu. Ez dirudi PPK jarrera horrekin botoak galduko ote dituen kezka handirik duenik. Haren boto emaile askok ondo ezagutzen dutelako emango diote, hain zuzen ere, botoa, baietz, Teodoro? Beste batzuek ez dute ondo ezagutzen, baina bost axola zaizkie Francoren hezurak, Albert Rivera Ciudadanoseko buruak esan zuen bezalaxe. Azken honen alderdiak ere, demokrata bezain progresista izanagatik, ez du presarik, ez baitu PPren argudio berari eusteko arazorik.

Ez dirudi PPK Francoren gorpuzkiak Erorien Haranetik ateratzeko dekretuaren aurka agertzeagatik botoak galduko ote dituen kezka handirik duenik

PP eta Ciudadanos alderdien ustez, beraz, ez dago Francoren gorpuzkiak “bere” hobotik ateratzeko presarik. PSOEk ez du sekula halakorik esan, baina bat etorri beharko luke argudio horrekin. Izan ere, ez du halakorik esan, baina eskuinak eskatzen duen patxada bera erakutsi izan du urte askoan. Trantsiziotik gaur arte Madrilgo Gobernuan urte gehien eman dituen alderdia da PSOE, 1982an hasita. Adriana Lastra alderdi horrek Kongresuan duen eledunak esan zuenez, premia handia dago, «40 urteko atzerapena daramagu». Hori pentsatzen al dute hainbeste urtean alderdiaren ardura izan dutenek, lurpean edo leizeetan zain dauden gorpuak ateratzeko patxada berbera erakutsi duten horiek? •



Alfonso Aranburu. Endika PORTILLO | FOKU

infraganti ALFONSO ARANBURU

Milaka disko ditu Alfonso Aranburuk. Horietako asko The Beatles taldearen diskoak dira. Gasteizen duen pisua Liverpoolleko musikariei eskainitako museo txiki bat da. LP, poster, liburu eta aldizkariz gainezka daude apalak eta hormak, eta nola ez, ikusgai dituen posterren artean dago GARAK argitaratutako 2012. urteko egutegia.

Batzuek kirola egiten dute errutinari aurre egiteko. Beste askok irakurri edo margotu egiten dute, edota musika tresnaren bat jotzen dute denbora pasatzeko. Alfonso Aranburuk dioen bezalaxe, guzti-guztiok behar dugu izugarri gustatzen zaigun zerbait egin, pozik ego teko, bizirik gaudela sentitzeko. «Edozer gauza, zigilu bilduma egitea, perretxiko bila joatea edo musika entzutea». Melo-

mano honek 7.000 LP inguru ditu etxean.

Izan ere, musikazale amorratua da Aranburu eta The Beatles da bere talde kuttuna. 1.100 euskarri musikal ditu, horien artean disko batzuen lehenengo edizioak eta edizio bereziak. Eta 200 liburu baino gehiago ditu etxean. Horrez gain, posterak, aldizkariak eta komunikabideetan agertu diren berriak ere gordetzen ditu. Liverpoolleko taldearen omenez egindako museo txiki bat Gasteizen dagoela esan daiteke.

Aranburuk azaldu digunaren arabera, bere bizitza aldatu zuen gertaera batek, txikia zela: 12 urterekin, The Beatlesen kasete bat utzi zioten. «Ordura arte Jorge Negrete, Los Tres Sudamericanos eta Nino Bravoren musika entzuten nuen, baina The Beatles entzuterakoan dena aldatu zen. Mundu berri bat ireki zen nire aurrean eta taldearen kaseteak erosten hasi nintzen. Garai hartan 250 pezeta balio zuten, eta ondo gogoan dut noiz eta nola entzun nuen bakoitza. Ez nekien zer esaten zuten, ez nuelako ulertzen, baina musika indartsua zen, melodiak zoratzen ninduen».


Handik gutxira hasi zen prentsan agertzen ziren berriak biltzen, eta ondo gogoratzen du 1970. urtean “Norte Expres” egunkarian taldea banandu egingo zela irakurri zueneko. «Zirrara ikaragarria eragin zitzaidan berri horrek», gaineratu du. Hala ere, The Beatlesen diskoak biltzen jarraitu zuen berak. «Eskolan nengoela, LPak eta EPak uzten zizkidaten eta auzokide baten disko-jogailuan entzuten nituen. Geroago erosi nituen The Beatlesen hogeigut singleak. Asteburuetan lagunen etxeetara joaten nintzen estereoreo moduan entzutera. Ikaragarria zen».

Azkenean, bere amak diskojogailua erosi zuen eta berak diskoak biltzen jarraitu zuen. Artean umea izan arren, biniloaren mistika nabaritzen zuen jada. «Ezin daiteke beste formatu batzuekin konparatu. Karpetak, argazkiak, soinua...», nabarmendu du. Oraindik ez tiro irekitzen ditu LPak, karpetak egiten duen zarata entzuteko. Berak dioen bezala, «beste gauza bat da». Zarata hori ez duzu entzungo CD edo kasete bat irekitzerakoan, are gutxiago ordenagailua piztu eta musika MP3 formatuan jartzerakoan.

THE BEATLES BAKARRIK EZ

The Beatles ezagutu ondoren musika genero berriei atea ireki zien Aranburuk. «Hiru urte pasa ziren rock talde gehiago entzuten hasi nintzen arte. Genesis bezalako taldeak, rock melodikoa egiten zutenak, hasi nintzen entzuten, eta pixkanaka jazz entzuten ere hasi nintzen. Hori aurkikuntza bat izan zen niretzako, tabernetara joaterakoan beti musika berdina entzuten zelako, beti euskaraz. Urko eta beste abeslari euskaldunen musika entzuten zen, eta gustukoa nuen musika hori, baina jazz ezberdina zen».

Eta beste genero musikal ezberdinak ezagutu ditu ordutik, bluesa edo folka bezalakoak, baita musika klasikoa ere. Baina berarentzat The Beatles beti izango da talde garrantzitsuenak. «Ez dakit zer gertatzen zaidan The Beatlesekin. Haien abestiak entzuten ditudanean beste mundu batean sartzen naiz. Alaitasunez beteriko mundu batean murgiltzen naiz. Ez dakit nola azaldu, egotira irrazionala da. Nik ‘desoreka’ deitzen diot egoera horri», aitortzen du. “Sgt. Pepper’s Lonely Hearts Club Band” diskoa entzuterakoan egoera horretan



Alfonso Aranbururen etxea The Beatles taldearen omenezko museo bilakatu da. Endika PORTILLO | FOKU

sartzen da Aranburu. «Entzuten dudak bakoitzean hunkitzen naiz», gaineratu du, eta gauza bat argi dauka: «'Yesterday' abestiarekin hunkitzen ez dena hilda dago».

Halako abestiak lanean ere erabiltzen ditu Aranburuk. Izan ere, adinekoekin lan egiten du, eta askotan baliatzen du musika. «Azken Rock jaialdia aprobetxatu nuen, rock and rolleko saio bat prestatzeko. Jerry Lee Lewisekin hasi nintzen eta Elvis Presleyrekin jarraitu. Adinekoek azaldu nien nola sortu zen rock and rolla, zeintzuk izan diren talde aipagarrienak. Chuck Berry-rekin hasi eta Bruce Springsteenera».

Eta adinekoekin partekatzen du bere pasioa, baina ez horiekin bakarrik. Dagoeneko hiru erakusketa antolatu ditu The

Beatlesen inguruan, eta Xoxoa diskoetxeari buruzko erakusketarekin ere prestatu nahi du. Hala ere, hilero egiten ditu entzunaldiak bere etxean. «Azken musika beltzari buruzkoa izan zen, eta duela gutxi John Lenonek idatzitako abesti politikoei buruzkoa ere egin dut».

Entzunaldietan parte hartzen dutenei disko eta liburutxo bat ematen die, saioan entzungo dituzten abestien hitzen itzulpenarekin. «Atsegin dut halako gauzak egitea, musika partekatzeari gustatzen zait».

The Beatles taldearen 1.100 euskarri musikal ditu, horien artean disko batzuen lehenengo edizioak eta edizio bereziak. Eta 200 liburu baino gehiago ditu etxean

Joseba Olalde «Egin» egunkariko argazkilariaren laguna zen eta honi esker ikusi ahal izan zuen McCartneyk Bartzelonan 1993an eskainitako kontzertua, eta kronika ere egin zuen

Musika dendetara joaten denean beti begiratzen du ba ote duten The Beatlesen diskorik eta dendariarekin hitz egiteko aprobetxatzen du. Askotan,

gauza berrien bat erosteko ere bai. «Beti esaten dut ez dudala ezer erosiko, baina aurreko batean 'Yellow Submarine' -ren edizio mugatuaren single bat erosi nuen». Etxe-

an ehunka euro balio duten diskoak ditu. «Kutxa batean 200 eurotik gora inbertitu nituen. Hamar urte luze neraman edizio horren atzean».

Disko batean Paul McCartneyren sinadura ere badu. Joseba Olalde «Egin» egunkariko argazkilariaren laguna zen, eta hari esker ikusi ahal izan zuen McCartneyk Bartzelonan 1993an eskainitako kontzertua. Pentsarako pase bat lortu eta abeslariaren prentsurrekoan egon zen. «Eskerrak eman nizkion egindako abestiengatik», gogoratzen du Aranburuk. Kontzertu horren kronika argitaratu zuen egunkarian.

Izan ere, The Beatles taldearen abestiak oso garrantzitsuak izan dira Alfonso Aranbururentzat, bai bere militantzia politikokoan –mugimendu antimilitaristan parte hartu du– eta bai gaixorik egon den uneetan, gaur egun bezala. •

Ion Salgado



IKUSMIRA

«MAITE-MAITE ZAITUT, PILA-PILA...»

Goizetik puntua jarrita joan zen beharbada Oiha-
na Bartra eguerdiko bertso saiora. Areatzatik Bil-
boko Alde Zaharrerainoko bidea egiteko ez da
hamaiketako sendogirik behar, baina egun oso-
ko ikuskizunetara joateko, programatu zein in-
probisatutako ekitaldi guzti-guztietan parte har-
tzeko -baita aldi berean programatu eta
bat-batekoetan ere, hala nola bertso saioan- on-
do janda joan beharra dago. Izan ere, Bilboko
jaiez ari gara. Denetarako tartea eta denetarako



Marisol RAMIREZ | FOKU

jendea topatuko duzun jaiez. Berrogei urte dituzten jaiak dira, gazte eta beteranoak. Egia da
Aste Nagusiak urte gehiago dituela, baina duela 41 urte besterik zen, ez zuen oraingoarekin
zerikusirik. Duela 40 urte, Iruñean Polizia postfrankistak (?) sanferminak odolez gorritu zitue-
nean, ia dena prest zegoen bilbotarren eta ondo pasa nahi duen ororen Aste Nagusirako, torti-
llari buelta eman beharrak bultzatuta. Aldaketak, baina, ez dira urte bateko kontua, eta, bistan
denez, hor jarraitzen dute, tortillari buelta ematen. Xabier Izaga Gonzalez

NERABEEN JOKABIDEA

Psikoterapia jokabide arazoak tratatzeko erabilgarria dela berretsi du gazteen iritziak

📁 ZIENTZIA / EHU

Frogatuta geratu da jokabide arazoak dituzten nerabeentzat tresna eraginkorra dela Jokabide Terapia Dialektikoaren (JTD) araberako trebetasun psikosozialetarako prestakuntza. Jokabide Terapia Dialektikoa Marsha Linehan psikologoak sortu zuen, mugako nortasunaren nahasmendua tratatzeko; desregulazio emozionala da gaitz horren ezaugarri nagusia. Osagai ugari ditu terapia horrek, hala nola paziente talde bat trebetasun psikosozialetarako prestatzea (hori izan da ikerketako aztergaia), bakarkako psikoterapia, fameli bideratutako trebetasun psikosozialetarako talde prestakuntza, telefono bidezko *coaching*-a eta ikuskapen taldea.

«Bibliografia ugari dago, ikuspuntu kuantitatibotik frogatzen duena terapiaren osagai jakin hori eraginkorra dela jokabide arazoak dituzten nerabeen sintomatologia barnertzailea nahiz kanporatzailea murrizteko», dio Eva Sesma Pardo Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuko Haur eta Gazteen Psikiatria Unitateko mediku psikiatra eta ikerketaren egileetako batek. Alabaina, «orain arte, bibliografian ez zegoen ikerketarik Jokabide Terapia Dialektikoaren trebetasun psikosozialetarako prestakuntzaren ebaluazio kualitatiboa egiten zuenik populazio nerabearekin, eta horixe izan zen gure ikerketaren abiapuntua. Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuko Haur eta Gazteen Psikiatria Unitatean 2010eko urtariletik ari dira esku hartze psikoterapeutiko hori eskaintzen, eta osasun laguntzako zentro publiko bakarra da Espainian JTD programa oso bat

Jokabide arazoak izan dituzten eta Jokabide Terapia Dialektikoaren arabera trebetasun psikosozialak landu dituzten nerabeen kontakizunak aztertuta, ikuspuntu kualitatibo batetik ebaluatu dute tresna psikoterapeutiko horren eraginkortasuna Basurtuko Ospitaleak eta Euskal Herriko Unibertsitateak.



Foku taldeen teknikaren bitartez, zenbait nerabe taldek izandako esperientzia ezagutu dute. Rudamese

duena bai nerabeentzat bai helduentzat», gaineratu du.

Ikerketarako, metodologia kualitatiboko foku taldeen teknika aukeratu zuten, eta parte hartzera trebetasun psikosozialetarako prestakuntza eginda zuten nerabeak, informatzaile onak, gonbidatu zituzten, JTD terapiaren osagai horretan izan zuten esperientzia subjektiboa ezagutzeko helburuarekin. Fo-

ku taldeetan, zenbait alderditan izandako esperientziari buruz aritu ziren parte hartzaileak: gaixotasunari lotutako bizipenak, terapiaren parte hartzeko motibazioa, terapiaren beraren esperientzia eta izandako emaitzak.

OSO ESPERIENTZIA ERABILGARRIA

Lortutako emaitzen artean, ikertzaileek nabarmendu dute

trebetasun psikosozialetarako prestakuntzaren oso balorazio positiboa egiten dutela parte hartzaileek. Sesmak adierazi duenez, «gazteek aitortzen dute prestakuntza taldetik pasatzean hobera egiten dutela jokabide arazoek eta sintomatologia barnertzaileak. Ziurtatzen dute JTD terapiaren izaera motibatzaileak lagundu egiten diela aldatzen, tratamenduan inplikazio aktiboa izateko motibazioa pizten diela. Ezinbestekotzat jotzen dituzte faktore horiek terapia eraginkorra izateko. Izan ere, aldatzeko moti-

rizatzeke, bai eta orainaldia hobeto ulertzeko ere. Diotenez, al daketa horiek taldeko terapia bukatu eta denbora batera ager daitezke».

Taldeko esku hartzea jokabide arazoak dituzten nerabeentzat zenbateraino erabilgarria den aditzera emateaz harago, «parte hartu duen nerabe taldeak berak gomendatzen du populazio osasuntsuan ere erabiltzea. Oso datu interesgarria da hori, berriki JTD terapiaren egokitzapen bat egin baita, eskoletako curriculum sozioemotionalan txertatzeko. Uneotan, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Psikiatria Zerbitzua buru da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak diruz lagundutako proiektu pilotu batean. Proiektuaren xedea da Bizkai-ko ikastetxe jakin batzuetako irakasleak curriculumaren egokitzapen horretan trebatzea, ondoren irakaskuntzan beste irakasgai bat bezala txertatzeko, eta, hala, nerabeei zenbait baliabide irakasteko, gai izan daitezen egunerokoan izan ditzaketen egoera zailetan edo askotariko arazoen aurrean era moldagarri batean jokatzeko. Hala, hobeto egongo lirarteke, eta horrek eskola emaitzak hobea izatea eragin lezake», dio bukatzeko.

Eva Sesma Pardok (Barakaldo, 1980) Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztutako doktore tesiaren barruan egin du ikerketa. Tesiaren zuzendari izan ditu Miguel Angel Gonzalez Torres, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Psikiatriako zerbitzuburua eta UPV/EHUko Neurozientziak Saileko irakasle titularra, eta Aranzazu Fernandez Rivas, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Haur eta Gazteen Psikiatriako atalburua eta UPV/EHUko Neurozientziak Saileko irakasle elkartua.



Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

«Salamancara joan nintzen...»

Udara honetan buruan bueltaka daukat ea ote daukan zerikusirik oporretan zein lekutara joaten zaren zure nortasunaren ezaugarriekin. Badaude familia eredu batzuk udaro leku berdinerara joaten direnak, bigarren etxe bat daukatelako edo ohituraz urtez urte hara joatea gustatzen zaielako. Nik uste dut euskaldunak ohitura zaleak garela, erritual zaleak, eta, hortaz, badaukagula halako joera bat leku berdinetara joateko, kuadrillan, familian... egunerokotasunean gure iza-teko moduaren ezaugarrietako bat delako leialtasuna. Egunerokotasunean, betiko ile-apaindegira, medikura, dentistara edota ginekologora joateko joera dugu. «*Los vascos y vascas son diferentes*» esaten dute, euskaldun baten bizilaguna edo laguna egiten bazara betiko lagun egiten zarelako...

Hasieran esan dudan bezala, ba ote dago oporretako helmugaren eta nortasunaren arteko lotura lantzen duen ikerketarik? Antzekotasunik ba ote dago Saloura joaten direnen artean? Edota Pirinioetara, Madrilera, Warner

parkera, Portaventurara, Benidormera edo Kanaria Handiko *todo incluido*-etara joaten direnen artean?

Niri urtero helmugaz aldatzea gustatzen zait, eta aurtan Salamancara joan gara kanpinean. Konpainia ederrean, lagunekin, hemendik bost ordura leku zoragarriak ikusi ditugu, erreketako putzuak, ibilbide ederrak familiar egiteko, herri txiki zoragarriak, zezenak eta animalia mordoa kanpalekuan bertan...

Gauero haurrak linternak hartu eta trikuak eta igelak ikustera joaten ziren, edota barbakoa bat egiten genuen haurrak parte hartzaile bihurtuz, mahai jolasetan jolasten genuen, kontuak kontatu. Mahai bueltako horri "gozo jana" deitzen genion. Denak adin ezberdinetakoak, baita tartean nerabeak ere, wifirik gabe, mugikorrik eta tabletarik gabe, zoriontasunaren jabe. Afarietako mahai jolasak gurasoen kontuak entzunez, elkar zainduz, elkarrekin jolasean.

Handik bueltan, etxera etortzean, pentsatu nuen oporretan haurrak, gazteak eta helduak gai bagara une zoragarriak konpartitzeko, aurrez aurre, kontu kontari, abestuz, elkar entzunez, jolasean, naturaz gozatuz, ia gastatu gabe, teknologia berririk gabe, errusiar mendi erraldoirik gabe, hegazkinik hartu gabe, zergatik ez ote garen gai ikasturtean zehar ere tarteka bederen une horiek elkarrekin izateko.

Horixe bera izan behar-ko litzateke gure erronka, nire erronka. Tarteka gelditu eta ingurukoei denbora eskaintzea deirik gabe, kirolrik gabe, Whatsappik gabe, kanpoko zirkuitulaburrik gabe. Oinarrian ez dugulako beste guztia behar, une sinpleetan dagoelako zoriontasuna! •



Teknologiarik gabe, errusiar mendirik gabe eta hegazkinik hartu gabe ere gai gara une zoragarriak partekatzeko.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. KUTXATEKA

DONEZTEBEKO PLAZAN DANTZAN, 1924KO JAIETAN

1924an Doneztebek 843 bizilagun zituen. Urte hartan Nafarroako Administrazio, Nekazaritza eta Merkataritza Gidak zioenez, herriko ekoizpen garrantzitsuenak artoa, babarrunak, egoskariak eta barazkiak ziren, eta bi gaseosa fabrika ere bazeuden bertan. Orain bezala lehen ere Doneztebeko Bear Zana plazan laxoan jokatzen zuten. Euskal pilotaren modalitaterik zaharrenetakoa da laxoa. Artikulu hau ilustratzen duen irudiak 1924ko jaietan Bear Zana plazan egindako herri bazkari baten ondorengo dantzaldiaren momentu bat jasotzen du. Haren egilea Donostian bizi zen Ricardo Martin argazkilaria izan zen, bizi izan zen garaiko milaka eta milaka lekuko grafiko utzi zituen eskarmentu handiko erreportaria.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*